

# 1. SARRERA

Diziplinaren aztergaia: Aktore sorta handi batek (estatuak, multinazionalak, nazioarteko erakundeak...) mugen gainetik dituen mota guztietako harremanak (politiko, ekonomiko, sozialak...)

Helburua: gertaera eta prozesuen arrazoi eta ondorioen azalpenak aurkitzea, kasu batzuetan teoriak sortuz (baina ez korrante guztiek).

## NAZIOARTEKO HARREMANEN SORBURUA

Sustrai intelektual sakonak ditu Errenazimendutik (XV, XVI): nazioarteko zuzenbidea, historia diplomatikoa eta harreman diplomatikoak

Diziplina bezala WWI ostean jaio zen, 1919an Aberystwyth Unibertsitatean (Gales). Ikuspegi orokorragoa bilatzen zuen, beste aspektuak aztertuz. Nazioarteko gizartea aztertzen zuen, ez bakarrik estatuen batuketa bezala.

Zergatik jaio zen?

- Aldaketa/garapen teorikoa gizarte zientzietan (aktore kolektiboak, azpiko baldintzak)
- Aldaketa sakona munduan: europar estatu-sistemak porrot egiten du WWI ostean, EEBBak nagusi.

Zertarako?

- Munduko kontuei buruzko analisi zabalago eta osoagoak emateko.
  - Gerraren arrazoiak ulertzeko, pakea eraikitzeko (enfoke normatiboa).
- Hasieran enfoke "normatiboa" du: aztertzaileen konpromiso morala politika paketsuak bultzatzeko.

## EZAUGARRIAK

- Gaztea eta garapen teoriko laburra.
- Anbiguotasun asko. Gauza asko zehaztu gabe (aztergaiak?, mugak?)
- Arlo asko barne hartzen ditu
- Gai eztabaidagarriak, ikuspegi ideologikoak
- Herrialde bakoitzean, tradizio bat
- Normalean, politikak orientatzeko enfokea ematen du (batzutan, kritikak egiteko)
- EEBBetan eta Britainia Handiko ikuspegiak sortua batez ere (eurozentrikoa). Iparraldeak sortzen du agenda (aztergaiak).
- Mapa teorikoa oso plurala eta konplexua. Korrante teoriko asko = mundu ikuskera asko; ezberdintasun ontologiko, epistemologiko eta metodologiko handiekin.

## EZBERDINTASUNAK "ONTOLOGIA"-N ("zer da errealitatea?")

Korrante teoriko bakoitzak badu bere abiapuntu ontologikoa, hau da, errealitatearen izaerari buruzko bere ulermena: ikerlari bakoitzak baditu nazioarteko harremanei buruzko "egia" edo sinesmen batzuk, bere ideologia, balore moral eta mundu ikuskeran oinarritzen direnak.

Ikuspegi ezberdin horiek hainbat arlotan dute eragina, adibidez:

1. Aktoreen nortasunean: estatuak diren edota beste batzuk ere bai?
2. Aktoreak ala egitura? zer da garrantzitsuagoa, zein elkarreragin dute? Aktoreek jarduteko gaitasuna dute (“agentzia”), baina egitura edo sistema (ekonomiko, botere, politikoa) baten barruan, beren askatasuna mugatzen duena.
3. Elkarreraginen izaera: Harremanak estatuaren botere eta interesetan oinarritzen dira... ala arauetan eta elkarren interesetan? Harremanak berez gatazkatsuak ala kooperatiboak dira? Badago nazioarteko “komunitate” bat, balore komunekin?

EZBERDINTASUNAK “EPISTEMOLOGIA”-N (“nola iritsi gaitezke errealitatea ulertzera?”)

Filosofiaren adar honek zera ikasten du: ezagutza zer den, nola eraikitzen den eta zeintzuk diren bere mugak eta baliagarritasunak; hau da, adibidez, ezagutza “egia” ote den, edo sinesmen bat bakarrik, botererako justifikazio/tresna bat...

Ikuspegi epistemologikoaren bi multzo daude:

a) Arrazionalistak/Positibistak

- Badago “mundu erreal” bat.
- Ikerketa independientea da, objetiboa, baloreetatik aparte.
- Beraz, teoria unibertsal eta iraunkorrak eraiki daitezke, errealitatea azaltzeko eta aurreikusteko (zientzia naturaletan bezala).

b) Pospositibistak

- Gizarte errealitatea sozialki eraikia da (imaginatua, irudikatua).
- Ikerlariak beren testuinguruetan murgilduta daude, beren balore, ideologia eta abarren eraginpean.
- Badago ezagutza nagusi/menperatzaile eta boterearen arteko lotura bat.
- Beraz, ezin daitezke eratu teoria unibertsal eta iraunkorrak NHetan.
- Ikuspegi normatiboa (motibazio etikoa, mundua nola izan beharko litzatekeen esaten duena)

EZBERDINTASUNAK “METODOLOGIAN” (infoa jaso, aztertu eta aurkezteko metodo & teknikak ikasten ditu)

Metodo horiek kuantitatiboak ala kualitatiboak izan daitezke.

Faktore materialak (baliabide ekonomikoak, botere militarra, teknologia...) ala ideologikoak (ideak, arauak, pertzepzioak...).

**KORRONTE TEORIKOEK EZBERDINTASUNAK DITUZTE HAINBAT ARLOTAN**

Munduaren irudiaren pertzepzioan, egileetan, aztergaitan, pakea/segurtasuna lortzeko baldintzetan, metodologian, balore etikoetan, ikuspegi ideologikoan,

Orokorki, orain bi bloke teoriko:

1. Korrante arrazionalistak/positibistak (zaharragoak, zenbait aldaerekin tarte historikoetan zehar):  
→ Errealismoa, liberalismoa, estrukturalismoa
2. Korrante pospositibistak (80/90eko hamarkadetatik aurrera):  
→ Konstruktibismoa, teoria kritikoa, posestrukturalismoa/posmodernismoa, ikuspegi poskoloniala, feminismoa, teoria berdea.

### **Nazioarteko gizartea:**

Diziplinaren aztergaia da. Makrogizarte mundiala da, mota guztitako aktoreak barne hartzen dituena (ez bakarrik estatua). Aktore horien artean harreman sendo eta iraunkorak daude, arau, erakunde eta baloreetan oinarriturik. Beraz, harreman horietan badago orden bat, aginte zentralizatu ez badago ere.

### **Nazioarteko sistema:**

Nazioarteko gizartea aztertzeko analisi tresna bat da, zeinak bere aktoreak, egitura eta prozesuak kontutan hartzen dituena.

### **Nazioarteko ordena:**

Nazioarteko gizartean dagoen botere egitura adierazten du. Egitura honek antolaketa eta egonkortasuna ematen ditu, eta hiru indar mota hauetan oinarritzen da: erakundeak, ideiak eta gaitasun materialak. Hiru ordena mota daude: unipolarra, bipolarra, multipolarra.

### **Nazioarteko komunitatea:**

Gizarte soila baino gehiago da: nortasun, kultura eta balore komunak eskatzen ditu. Batzuk diote hori bilatzen dugula (giza eskubideak aldarrikatzerakoan...). Beste batzuk, ez dagoela benetako nazioarteko komunitaterik: globalizatutako baloreak mendebaldekoak dira.

## **2. KORRONTE TEORIKOAK**

KORRONTE ARRAZIONALISTAK: errealismoa, liberalismoa & estrukturalismoa.

### **1. ERREALISMOA**

Bilar mahai batekin konparatzen du mundua. Gero eta gertuago egon zuloetatik (inperioetatik) orduan eta errzagaoa da bola sartzea (etekinak lortzea).

SUSTRAIAK ETA AINTZINAKO PENTSALARIAK:

Thucydides (Peloponesoko Gerren Historia, K.a V.mendea); gerra azaltzen du, hiri-estatuen arteko (Esparta eta Atenas) botere-orekaren apurketaren ondorio bezala.

Errenazimendutik (XV, XVI) ikuspegi estatu-zentrikoa garatzen da pentsamendu politikoan:

Machiavelli (Italia, XVI) *printzea*: Estatuaren eta honen interesak lortzeko agintariak jarraitu behar dituen jarrerak eta jarraibideak zehazten ditu: modu guztiak dira onuragarriak helburua lortzeko (gezurrak, manipulazioak, krudelkeria, hilketak). Politika eta moralitatea ez datoz bat.

Thomas Hobbes (Ingalaterra, XVII) *Leviathan*: Gizarte antolakuntzaren jatorria azaltzen du, gizarte eta agintarien arteko “gizarte hitzarmen” bat bezala.

“ERREALISMO POLITIKOA”-REN SORRERA (Gerra Hotzean jaiotako korronea)

Carr (Twenty Years' Crisis, 1919-1939 liburua): Gerra mundialen arteko “idealismoa” (bakea eta lankidetzaren ideiak) gogorki kritikatu du, ameskeria zela 2MGak frogatu zuenez. Biziarauteko beharrak eta lehiak kondizionatzen dute estatuaren portaera ideia utopikoek baino gehiago. Beraz, estatuen arteko harremanetan, botere-oreka funtsezkoa da.

Morgenthau (Politics among Nations. The Struggle for Power and Peace (1948): Errealitatea arrazionalki aztertzeko teoria enpiriko bat sortzea zen bere helburua. Errealismo Politikoa sortzailea. Honen sei printzipioak ezarri zituen, laburbilduz:

→ Badaude arau objektibo batzuk (beren jatorria gizaki naturan daudelarik) politika arautzen/bideratzen dutenak. Beraz, arau objektibo horiek aurkitzeko teoria arrazional bat garatzea posiblea da.

→ Politikaren helburu arrazional eta objektiboa “interesa” lortzea dela dio, botere bezala ulertuta. Beraz, politikaren analisi arrazionala posiblea da. Hauxe da Errealismo Politikoa xedea.

→ Errealismoak dio ekintza politikoak dimentsio morala duela, baina bere aztergaia ez da moralitatea.

ERREALISMOAREN BILAKAERA (EEBB & Europan garatu)

Akademikoen artean: analisi arrazionalak ahalbidetzen zituen.

Politikarien artean: Gerra Hotzean kanpo politikak bideratzeko tresna praktikoak ematen zituen

Gerra Hotzean nagusitu zen (Mendebaldean teoria bakarra zegoen 70eko hamarkadara arte). Bi blokeen arteko burrukaren testuinguruari ondo zegokion. GHren ondoren ere oso indartsua zen, aldaketa batzurekin: “Neoerrealismoa”.

OINARRI FILOSOFIKOAK: GIZA IZAERA ETA BERE ONDORIO SOZIALAK

Abiapuntua Hobbesen “ezkortasun antropologikoa” da. Gizakion “berezko egoera” berekoia eta biolentzia direla zioen. Beraz, bizitza sozialak gatazkatsua izateko joera du. Hobbesek esaldi hauek erabiltzen zituen gizakiaren izaera deskribatzeko:

*Bellum omnium contra omnes* (guztion kontrako guztion gerra)

*Homo homini lupus* (gizakia otsoa gizakiarentzat)

Baina “berezko egoerak” ondorio oso desberdinak ditu barne gizartean (estatu barruan) eta nazioarteko gizartean.

- Estatu mailan: egoera naturala gainditu da, “gizarte hitzarmen”ari esker. Jendeak askatasuna galtzen du estatuaren mesedetan, eta estatuak ordena eta segurtasuna bermatzen ditu.
- Nazioartean: ez dago estatu gaineko aginte zentralizaturik, gizarte hitzarmenik. Beraz, anarkia eta gatazka dira nagusi.

## NAZIOARTEKO SISTEMAREN EGILEAK

Estatua da aktore nabari bakarra. Estatuak osatutako nazioarteko sistema da. Beste aktore batzuk estatuaren interesen eta politiken menpe daude. Errenazimendutik ikuspegi “estatu zentrikoa” sortu zen arlo askotan; zuzenbidean, diplomazia, historia...

Dena dela, gaurko “Neorealismoak” nazioarteko erakundearen eta egile ekonomikoen garrantzia onartzen du.

Sistema anarkikoa eta biolentoa:

- Ez dago aginte/gobernu zentralik, ordena eta segurtasuna berma ditzakeena.
- Beraz, estatuaren arteko harremanak bakoitzaren interesetan, aurkakotasun eta mesfidantzan oinarritzen dira. Gerra arrisku amaigabea badago.
- Ondorioz, estatu bakoitzak bermatu behar du bere segurtasun propioa, bere botere militarra handituz (si vis pacem, para bellum)
- Baina pakea posiblea da, “botere oreka”-ren bidez.
- Botere maila antzekoa duten estatuaren aliantzek “disuasioa” sortarazten dute, Gerra Hotzean bezala.

## NAZIOARTEKO (ESTATUEN ARTEKO) HARREMANAK

Estatuaren arteko harremanak “botere erlatibo” gehiago lortzeko burruka-harremanak dira. Estatu zentrikoko lehentasunak: segurtasuna (biziraupena) eta interes nazionalak dira. Estatuaren interes eta gaitasunen (propioak eta besteenak) analisi arrazional baten bidez diseinatzen dituzte beren kanpo politikak. Etika, justizia, baloreak, giza eskubideak...ez dira helburuak nazioartean.

## ERREALISMOA TEORIA BEZALA

1. Enpirikoa da. EZ normatiboa (ez balorerik, ez aldaketa sozialerako).
2. Botere politiko/militarraren faktore materialak aztertzen ditu. EZ faktore/aspectu ideologikoak.
3. “Politika altua” (segurtasun arazoak, diplomazia...) aztertzen du. EZ “politika baxua” (ekonomia, gizartea, kultura...)
4. Etnozentriko & eurozentrikoa da
5. Kontserbadorea. EZ dio kritikarik egiten portaerei, statu quoari, egiturei...
6. EEBBetako eta mendebaldeko beste gobernuak laguntza eman zioten Gerra Hotzean.

NEOERREALISMOA edo Errealismo Estrukturala (80ko hamarkadaz geroztik) Kenneth Waltz

Mundu politika nazionarteko sistemaren egitura anarkikoan oinarritzen da, unitate/egileen estrategietan, motibazioetan edo izaeran baino gehiago.

Gerrak nazioarteko sistemaren egituraren ondorioak dira, ez “giza izaera” gaiztoaren ondorioa (errealismo klasikoak esaten zuen moduan).

Beste elementu batzuk onartzen ditu:

- Harreman ekonomikoak eta egile ekonomikoak.
- Estatuaren arteko lankidetzak eta nazioarteko erakundeak.

Zatiketa gertatu zen 90eko hamarkadaz geroztik :

- Neorerrealismo ofentsiboa: EEBBek beren interesak defendatu behar dituzte, ahal duten botere guztia metatuz eta, beharrezkoa bada, Segurtasun Kontseilu eta nazioarteko legetik kanpo.
- Neorerrealismo defentsiboa: EEBBek hobeto defendatuko dituzte beren interesak Segurtasun Kontseilu, aliatu eta nazioarteko legearekin.

## 2. LIBERALISMOA ETA NEOLIBERALISMOA

Liberalismoak mundua armiarma sare bat bezala ikusten du. Mota guztietako lotura eta elkar eraginak daude, zeinak maila berekoak diren.

Liberalismoak tradizio luzea du pentsamendu politikoan. Diziplinaren historian zehar zenbait aldaera (eta izenak) izan ditu.

- WWI- WWII → Idealismoa
- 70eko hamarkadan → Globalismoa, interdependentziaren teoria...
- 80ko hamarkadaz geroztik → Neoliberalismoa, neoinstituzionalismoa.

Nazioarteko Harremanetako korranteetatik bigarren garrantzitsuena da (errealismoa ostean). Historikoki errealismoaren ikuspegi alternatiboa izan da. Baina gaur egungo “neoliberalismoak” errealismoaren zenbait elementu bereganatu du.

### SUSTRAI INTELEKTUALAK

**Locke** (Ingalaterra, XVII.): Berezko lege moralak dago, absolutua eta politika baino lehenagokoa (adibidez, autoritarismoa ez pairatzeko berezko eskubideak...). Arau moralaren ideia hau giza eskubideak sostengatzeko erabili da.

**Kant** (Prussia, XVIII. Ilustrazioa):

- Filosofo “kosmopolita” nagusia da: gizateria komunitate unibertsala da.
- Gizakiok eskubide unibertsalak eta absolutuak ditugu. Besteen eskubideak, autonomia eta askatasuna errespetatzeko “agindu kategorikoa” (erabateko obligazioa) dugu. Beraz, helburu hori ahalbidetzeko moduan gure bizitza soziala (eta nazioarteko politika) moldatzeko betebeharrak morala da. Ondorioz, nazioartean anarkia eta gerra gainditzeko irtenbideak bilatu behar dira.

- Bake iraunkorra proposatzen du: bakea posiblea da politikaren bidez eta arrazoia nagusitzen bada beldurraren aurrean. Gainera, gatazka ezabatzea betebeharrak morala da (besteen askatasuna errespetatzeko). Horrek berezko egoera gainditzea eskatzen du. Horretarako proposamenak:
  - Herrien lege kosmopolita; gizabanakoei nazioarteko eskubide batzuk onartzea.
  - Europear Estatuaren Konfederazioa

## OINARRI FILOSOFIKOA: GIZA IZAERA ETA BERE ONDORIO SOZIALAK

Baikortasun antropologikoaren arabera, gizakiok ...

- arrazionalak gara (arrazoia da aurrerapenaren oinarria)
- onak gara (testuinguruak ez bagaitu aldatzen)
- komunitate globala osatzen dugu
- eskubide unibertsalak eta absolutuak ditugu

Beraz, berezko egoera gaindi daitezke. Bake eta lankidetzan bizi gaitzke.

## NAZIOARTEKO SISTEMA

Egileak:

- Pluraltasuna: estatuak, nazioarteko erakundeak, muntinazionalak, GKEak, etab.
- Baina estatuak oraindik inportanteenak eta pribilegiadunak.

Sistemaren ikuspegia:

- Unibertsala eta holistikoa (ez estatuzentrikoa)
- Badago "gizarte globala": elkarloturak, interes komunak, nortasun komuna....
- Elkarreagin globalak daude aktore askoren artean, hainbat mailatan (politikoak, ekonomikoak, sozialak...)

## NAZIOARTEKO HARREMANAK

Lankidetzan, gatazkan baino gehiago, oinarritzen dira eta oinarritu behar dira. Bakea lor daitezke eta lortu behar da lankidetzaren bidez (nazioarteko erakundeak, nazioarteko zuzenbidea, helburu eta balore komunak...).

- Nazioarteko erakundeak eta arauak anarkia murrizten dute.
- "Segurtasun kolektiboa" bultzatzen dute (segurtasuna ez dator disuasiotik eta botere orekatik). Adibidez, Nazioen Elkartea eta Nazio Batuak.

Bakea/segurtasuna ez da helburu bakarra, badaude beste gai garrantzitsu batzuk: arazo globalen kudeaketa, elkarlotura ekonomikoak, giza eskubideen defentsa, etab.

Arazo globalek eta interes komunek dute lehentasuna, ez estatuaren interesek.

Etika eta moralitatea nazioartean ere bai.

- Mugaz gainetik hedatu behar dira giza eskubide unibertsalak eta Ilustrazioaren baloreak.
- Ez dute bereizketa zorrotzik egiten barne eta nazioarteko eremuen artean.

## LIBERALISMOA TEORIA BEZALA

1. Enfoke normatiboa: Ilustrazioaren baloreen hedapena (askatasun indibiduala eta eskubide zibikopolitikoak, pake mundialaren sustapena lankidetzaren bidez, etab.)
2. Ez da kontserbadorea: eraldatzailea, aurrerapenaren aldekoa, baina ez statu quo eta botere harremanen aldaketa sakonaren aldekoa.
3. Garrantzia ematen die alde ideologikoei (eskubideak, baloreak...)
4. Politika baxua (low politics) aztertzen du (nazioarteko ekonomia bereziki), ez politika altua bakarrik.
5. Mendebalde-zentrikoa da (bere baloreak Europako Ilustraziotik datoz), errealismoan bezala.

## ENFOKE LIBERAL BATZUK DENBORAN ZEHAR

### A) IDEALISMOA (20 and 30eko hamarkadak)

- Testuingurua: WWI ostean sortu zen.
- Helburu normatiboa (bakezalea): gerraren kausak ezagutzea eta hori ekiditeko neurriak proposatzea (balore unibertsaletan oinarritutako nazioarteko zuzenbidea eta nazioarteko erakundeak sortzea).
- Nazioen Elkartearen fundazioa bultzatu zuen (Geneva, 1920).
- WWII desagertarazi zuen.

### B) GLOBALISMOA, INTERDEPENDENTZIAREN TEORIA (70ko hamarkada)

- Testuingurua: mundu mailako interdependentzia harremanen gorakada (garraio eta komunikabideen iraultza, lotura ekonomiko globalen hazkundea, arazo globalen mehatxuen eta kontzientziaren areagotzea...).
- Badago “gizarte globala”, aktore askoren (estatuak, baina baita ere nazioarteko erakundeak, multinazionalak, GKEak...) arteko “interdependentzia konplexuan” oinarritutakoa, hau da, elkarreragin eta harreman asko maila ezberdinetan (politikoa, ekonomikoa, soziala, etc.).
- Mundu-ikuskerak “holistiko” edo globala.
- Interdependentziak aldaketa kualitatiboa dakar: mundua ez da interes nazionala bilatzen duten estatuen batuketara bat.
- Politika baxua eta Nazioarteko aktoreak garrantzitsuak dira
- Interdependentziak, bere interes eta arazo komunekin, lankidetzara areagotzea eskatzen du.
- Garrantzia handia ematen diete nazioarteko erakunde, arau eta akordioei...

### C) NEOLIBERALISMOA (80eko hamarkadaz geroztik) Nye, Keohane

- Ideia neoerrealista batzuk onartu dituzte:



- Nazioarteko sistema anarkikoa da
- Estatu subiranoa da egilerik garrantzitsuena.
- Mundua zehatz aztertzeko eta teoria frogagarriak eratzeko eredu zientifikoak erabili behar dira.
- Baina badaude desakordioak neo/neo-en artean:
  - Neoerrealistek estatuen arteko gatazka ezinbestekoa dela azpimarratzen dute eta ikuspegi estatuzentrikoa dute. Neoliberalak lankidetzaren eta nazioarteko erakundeen garrantzia azpimarratzen dute.
  - Neoerrealistek segurtasun kontuei eta gerrari ematen diete lehentasuna. Neoliberalak, aldiz, ekonomia, globalizazio, ingurugiroa eta politika baxuari.
- Ondorioz, hau da beren ideia nagusia: Sistema anarkikoa bada ere, estatu arrazional eta berekoien arteko lankidetzaz posiblea dela.

#### D) GAURKO BESTE IKUSPEGI LIBERAL BATZUK

-KOSMOPOLITISMO LIBERALA (John Rawls, Thomas Pogge...)

Kanten kosmopolitismoan oinarritzen dira. Aztergaiak: justizia globala, hiritartasun globala, eskubide unibertsalak, eta hauek babesteko betebeharrak moralak nazioarteko mailan (gose eta pobrezia aurre egiteko, errefuxiatuak babesteko...).

-BAKE LIBERALA ETA BAKE DEMOKRATIKOAREN TEORIAK (Doyle...)

Sistema liberala (merkatu ekonomia, demokrazia) duten herrialdeek ez dute gerrarik egiten elkarren artean. Beraz, globalizazio neoliberalak estatuen arteko bakea bultzatzen du.

### 3. ESTRUKTURALISMOA (marxismoa, dependentziaren teoria, mundu-sistemaren teoria)

Zapalkuntzan oinarritutako gizarte batean bizi garela diote hauek. Mundua olagarro batekin konparatzen dute. Burua elikatzeko, tentakuluetaz baliatzen dira, hau da, hirugarren munduko lehengaietatik.

Idea estrukturalistak marxismotik datoz gehienbat, baina ez beti. Ikuspegi errealistak eta liberalak kritikatu dituzte. Aldaketa erradikalak proposatu dituzte. Beraz, diziplinaren korrante nagusitik kanpo geratu da.

Bi ikuspegi nagusi garatu ziren Gerra Hotzean zehar:

1. Dependentziaren teoria (60eko hamarkadaren amaieratik 80eko hamarkadara arte)
2. Mundu-Sistemaren Teoria, Immanuel Wallerstein-ena (70 eta 80eko hamarkadak)

Gerra Hotza amaitzean, marxismoa gainbehera izan zuen, baina eragina izan du korrante kritiko batzuetan, batez ere "Teoria Kritikoan".

#### SUSTRAI TEORIKOAK MARXISMOAN

**Marx & Engels (XIX)** → Mundua produkzio sistema ekonomikoek definitzen zuela zioten.

Materialismo historikoa: produkzio ekonomiko ereduen arabera zenbait sistema sozioekonomiko egon dira (feudalismoa, kapitalismoa, sozialismoa). Klaseen arteko borroka sistemaren arteko bilakaera historikoa bultzatu du.

Kapitalismoan esaterako: Lana eta kapitalaren banaketa, eta bi aurkako klase zeuden (langileria eta burgesia). Burgesiak langileengandik plusbalioa ateratzen du. Beraz, kapitalismoa esplotazio eta zapalkuntzan oinarritzen da.

Kapitalismoaren arazoa? Langileriak eta burgesiak (estatuak) ezteela berdin irabazten ze estatuek beti gainbalotikan gero ta etekin handiagoa nahi du ateratzea, beraz klase arteko borrokoa sortzen da.

**Lenin & Rosa Luxemburg** (XX. mendeko hasiera) → WWI-en erail zuten Rosa

Marxismoa nazioarteko analisisira aplikatu zuten, inperialismoaren teoriak: kapitalismoaren azken etapa litzateke. Bertan potentzia industrialek lurra eta merkatuak konkistatzeko borrokatzen zuten, bere interesen mesedetan. Herrialde ahuletatik komeni zitzaizkien lehengaiak ustiatu zituzten, herrialde indartsuen garapen industrialerako, eta horrela merkatua kontrolatu ahal izateko. Zapalkuntzaren eskema mundu mailan aplikatu zuten, esanez gizarte batzuk beste batzuk zapaltzen dituztela.

## IKUSPEGI ESTRUKTURALISTEN EZAUGARRI KOMUNAK

Sorrera: 60-70eko hamarkadetan. Deskolonizazio prozesu ondoren, zeinak benetako independentzia eta garapena bermatu ez zituen.

Aztergaiak:

1. Munduko sistema ekonomiko kapitalistaren egitura.
2. Erdigune/periferiaren arteko zatiketa. Herrialde periferikoak dependentzia eta zapalkuntza sufritzen dituzte, azpigarapena sortaraziz.

Zerk kokatzen gaitu munduaren erdigunean? Mendebaldeko herrialde industrializatuek sistema ekonomiko mundiala kontrolatzen dugulako. Aipatzekoa da Irakeko inbasioa → herrialde batek ihes egin nahi duenean kontrol horretatik, inbasio militarrekin erantzuten da, interes ekonomikoak babesteko.

Analisiaren ezaugarriak:

- Sistemikoa eta unibertsala: garrantzitsuena sistema ekonomiko mundiala da, ez hura osatzen duten egile (estatuak, erakundeak...) indibidualak. Izan ere, beren jardueraren sistemaren egiturak mugatu egiten ditu.
- Baina estrukturalistek garrantzia ematen diete aktore ekonomikoei, klase sozialei, askapen mugimenduei...

Mundu mailako harremanak asimetrikoak dira: elkarrengainak desberdintasun eta dependentzian oinarritzen dira.

Nazioarteko erakundeak eta nazioarteko zuzenbideak botere-harreman zapaltzaileak erakusten dituzte.

Ikuspegi ekonomikoa: Beren analisiak faktore ekonomikoetan oinarritzen dira.

Ikuspegi historikoa: Munduko sistema ekonomiko kapitalista prozesu historiko baten ondorioa da, European jaio zena eta azken bost mendeetan hedatu dena.

Ikuspegi dialektikoa: Dialektika marxista (klaseen arteko interes eta borroka ezberdinak) jarraituz, erdigune/periferia zatiketa aztertzen dute, eta baita zapalkuntza eta azpigarapena gainditzeko borroka.

Bakea ala gatazka? Bilakaera historikoa gatazkan oinarritu da. Sistemak biolentzia erabiltzen du eta gainera “biolentzia estrukturala” sortarazten du. Biolentzia aldaketa/iraultzarako tresna izaten da batzuetan. Beraz, helburu nagusia ez da bakea, sistema ekonomiko mundialean dagoen zapalkuntza gainditzeko aldaketa estrukturala baizik.

Ikuspegi normatiboa: Aldaketa estruktural sakona bilatzen dute, berdintasuna eta eskubide sozial eta ekonomikoak aldarrikatuz.

Korronte periferikoa: Hegoaldean sortua, bere arazo eta interesetatik. Baztertuta diziplinan.

DEPENDENTZIAREN TEORIA (Raúl Prebisch estrukturalista, Gunder Frank, Samir Amin marxista)

Hego Amerikan jaioa 60eko hamarkadan. Frank olagarroaren metaforaz baliatu zen honakoa esplikatzeko: Iparraldea garatu zen heinean Hegoaldea azpigaratuz joan zela (bata bestearen kontura). Iraultza Sozialista egiteko planteamendua egin zen, aldaketa politiko eta ekonomiko erradikala burutzeko. Horretarako Hegoaldekoen arteko truke harremanak indartu beharko ziren.

Teorialarien arabera, azpigarapenak atzerapen teknologikoarekin ez zu zer ikusirik. Baizik eta herrialdearen kokapenarekin (biyarran teoria). Azpigarapena, Iparrak sortu dituen mundu egitura ekonomikoaren ondorioz dator, zeinetan Hegoak desabantailak eta dependentzia dituen (Iparrak kontrolatzen ditu merkatuak, prezioak, patenteak, multinazionalak, erakundeak; “truke baldintzak” desberdinak dira, ze Hegoak lehengai merkeak esportatzen ditu eta manufaktura garestiak inportatzen). Ondorioz, badago aberastasun transferentzia Hegotik Iparraldera, azpigarapena sortuz.

Hegoko elite eta erregimenak sistema zapaltzailearen aliatuak dira. “Hirugarren Munduko” garapenak dependentziarekin amaitzen duen aldaketa estruktural eta erradikala (iraultza) eskatzen du.

**Samir Amin** eta deskonexioa (*Delinking, La desconexión*): Hegoak Iparrekiko dependentzia harremanak moztu beharko lituzke, Hegoaldekoen arteko harremanen eta iraultza sozialisten bidez.

MUNDU-SISTEMAREN TEORIA (Immanuel Wallerstein, 70 eta 80eko hamarkadak)

Mundu mailako sistema ekonomikoa aztertu beharra zegoen, lanaren banaketa aztertuz. Nazioarteko analisiaren oinarritzko unitatea mundu-sistemak izan beharko lirateke (ez estatuak).

Mundu-sistemak lanaren nazioarteko banaketak sortzen ditu, zeinek mundua hiru herrialde motatan zatitzen dituen:

- Erdiguneko herrialdeak: teknologia altuko eta kapital intentsiboko produkzioa.

- Periferiako herrialdeak: teknologia baxuko eta eskulan intentsiboko produkzioa.
- Herrialde erdiperiferikoak.

Sistemak erdiguneko herrialdeen nagusitasuna berrindartzen du. Baina dinamikoa da eta herrialdeek beren estatusa irabaz edo gal dezakete. Mendeetan zehar, munduko hegemonia potentzia batetik beste batera pasatu zen (...Frantzia, Erresuma Batua, EEBBak).

*Maoismoak* herrialde bakoitzean iraultza nazionala bilatzen zuen vs. *Troviskismoak* iraultza etengabea eta mundu mailakoa izan behar zela esaten zuen.

## DEPENDENTZIA ETA MUNDU-SISTEMAREN TEORIEI KRITIKAK

Garrantzi gutxiegi ematen zieten barne egoera eta barne politikari, munduko egitura ekonomikoa baita gakoa. Sistema ekonomikoak, herrialdearen azpi/garapena baldintzatzen zuela zioten.

Deterministegiak: egitura hauen arabera Hirugarren Mundua ezin badaiteke garatu, zergatik gartu dira herrialde batzuk? Politika egokiak erabiliz garapena lortu daitekeelako; hezkuntzarekin... Beraz, gezurra dela zioten herrialdearen garapena lokalizazioak baldintzatzen zuela ze herrialde asko atera dira azpigarapenetik politika egokiak ibilita.

**KORRONTE POSTPOSITIBISTAK:** Konstruktibismoa, Teoria kritikoa, Teoria feminista, Teoria postkoloniala eta Postmodernismoa

## POSITIBISMOARI KRITIKAK

Positibismoa metodologia zientifiko eta arrazionala da (Compte 1798-1857). Ilustrazioari/modernitateari lotuta dago, metodo horrek askatasuna eta aurrerapenera eramaten gaitu.

Oinarriak (natur zientzietan eta gizarte zientzietan ere bai)

- Errealitate objetiboa du.
- Ikerlaria neutrala.
- Metodo zientifikoaren bidez (empiriko, askotan kuantitatiboa), errealitatea ulertu ahal da.
- Teoria objetibo, unibertsal eta iraunkorrak eraiki ahal dira.

Postpositibismoa (80.hamarkadatik aurrera)

**Nietzsche** (1844-1900) izan zen gidaria. Zientziak eta arrazoiak ez gaituzte askatasun eta bizitza hobea eramateko (holokaustoa, arma nuklearrak...)

Metodo zientifikoak ez du balio gizarte zientzietan:

- Ikerlaria ez da neutrala (pertzepzioak, aurreiritziak, ideologiak...)
- "Errealitate objetiboa" kuestionaturik: Batzuk diote ez dela aurreikusgarria, beste batzuk ez dagoela.

Beraz, azalpenak erlatiboagoak dira (Teoria handi unibertsalak faltsuak dira)

Ezagutza zientifikoa kontingentea da ...ala... EZ dago ezagutza zientifikorik gizarte ikasketetan.

## GERRA HOTZAREN OSTEKO MAPA TEORIKOA

Guztien arteko eztabaidak eman ziren: positibistak vs. postpositibistak, eta talde horietan barruan...

Positibistak/arrazionalistak → Neoerrealistak & Neoliberalak/Neoinstituzionalistak & Estrukturalistak

Postpositibistak, errefraktarioak, kritikoak → Konstruktibistak ↑ & Feminismoa (parte bat) & Teoria Kritikoa & Teoria poskoloniala & Posmodernismoa

Ezaugarri komunak:

- Ezagutza/teoria ez da unibertsala eta iraunkorra.
- Ideiek (pentsamoldeak, diskurtsoak, lengoia, etab.) garrantzi handia dute nazioarteko gizartean/egituran (ez bakarrik faktore materialak).

## KONSTRUKTIBISMOA

Hasieran korrante erradikala zen, gero moderatuagoa. Arrakastatsua.

1. Nazioarteko gizartea/egiturak konstrukzio soziokulturalak dira, ideia konpartituetan oinarriturik. Beraz, nazioarteko sistema eta nazioarteko harremanak batez ere ideiek eta faktore soziokognitiboek (pentsamoldeak, baloreak, ikuspegiak, arauak, sinboloak...) eraikitzen dituzte (ez bakarrik faktore materialak: baliabideak, boterea, armak, etab.). Estatuak ez dira interesetan oinarritzen, baizik eta:

- balore konpartitu eta legitimoetan: giza eskubideak, printzipioak...
- arauak eta printzipio onartuetan (subiranotasuna, multilateralismoa...)

2. Nazioarteko aktoreak eta nazioarteko egiturak elkar sortzen dira. Adb: Errealistek eta liberalek: aktoreek → egiturak sortarazten dituzte. Estrukturalistek: egiturak → aktoreak sortzen ditu.

Zein kritikatzten dute...

- Errealistak. Ze hauentzat nazioarteko sistemaren egitura estatuen arteko botere materialaren banaketan oinarritzen da.
- Neoliberalak. Arauek aktoreen ekintzak mugatu eta azaltzen dituztela diote. Konstruktibestek, aldiz, arauak aktoreen interesak eta nortasuna osatzen dituzte.
- Estrukturalistak. Ze hauentzat egitura da nagusi, aktoreak ez.

Gaitasun handia dute aldaketak azaltzeko, ideien aldaketaren bidez, eta egitura-aktoreen elkarreraginaren bidez (GHren amaiera...). Esaterako...

- Kontzeptuak eta printzipioak: subiranotasuna, eskubideak, arauak
- Nazioarteko arauen eraketa eta eboluzioa.
- Nazioarteko erakundeen eragina estatuen interesen sorreran...

## FEMINISMOA

Feminismo mota ezberdinak (ez denak pospositibistak):

- Liberala: berdintasun juridikoaren arloan.
- Erradikala: "genero", errealitate osoa berrinterpretatzea → aldaketa sakona.
- Posmodernista: ez kategoria unibertsalak.

Kuestionatzen dute:

- NHetan arazo, ikuspegi eta eginkizun nagusiak gizonen ikuspuntutik direla. Androzentrismoa.
- Diziplinak emakumeen arazoak, ikuspegiak, etab jorratu behar ditu.
- Publikoa eta pribatuaren arteko bereizketa gainditu behar (nh=publikoak)
- Emakumeen ekarpenak nazioarteko gizartean ezkutatuta daude, plazaratu egin behar dira.
- "Genero" identitateak eragina du nazioarteko harremanetan/politikan.

Gai nagusiak:

- Emakumeen nazioarteko ekonomian eta Hirugarren Munduko egoera.
- Emakumeak eta gatazka armatuak.

## TEORIA KRITIKOA

Ezagutza zientifikoa/teoriak izan ohi dira boterearen mesedetan. Beste ezagutza bat eraiki behar da, eraldatzailea, gizakia askatzeko.

Bi korrante nagusi:

a) Gramsciren jarraitzaileak. Estrukturalismo/dependentziaren luzapena. Nazioarteko ekonomia, Ipar-Hegoaren arteko aldeak (merkataritza, multinazionalak, etb.), azpigarapena. Globalizazio neoliberalaren ikuspegi kritikoa.

b) Habermas-en jarraitzaileak (Frankfurteko eskola). Askatasunerako giza eskubideak unibertsalizatu behar dira (ez estatu bakoitzekoak): etika unibertsala, hiritartasun globala.

TEORIA POSTKOLONIALA (Edward Said, Orientalismo, 1978)

1. Kolonialismo eta inperialismoa justifikatzeko mendebaldean pentsamolde bat garatu zen XVIII mendetik (Hegoari buruzkoak, mundu arabiar-musulmanari buruzkoak):

"Bestea"-ren irudi negatiboa: beheko herriak, basatiak, atzerakoiak... Mendebaldearen kontrakoa. Kultura/ezagutza eta boterearen arteko harremana dago. Literaturak kolonizatzaile eta kolonizatuen arteko botere harremana isladatzen du.

2. Deskolonizazioaren ondoren, pentsamolde/irudi horrek jarraitzen du nazioarteko gizartean eta harremanetan, neokolonialismoa justifikatzeko. Mendebaldeko neokolonialismoa eta hegemonia justifikatzen ditu (Ekialde Hurbileko kontrola, Palestinaren zapalketa, ...).

## POSTMODERNISMOA ETA POSTESTRUKTURALISMOA

Modernizazioaren eta positibismoaren kritika gogorrena (oso filosofikoa). Ez dago analisi objetiborik, ezta errealitatea/egia. Pertzepzio indibidualak & subjektiboak bakarrik daude (eta guztiek balio dute).

Hau da, ez da bata bestea baino hobeagoa izango (erlatibismoa). Ezin daiteke teoriarik egon, konstrukzio faltsua izango bailitzateke.

Ekarpenak:

- Diskurtso, lengoaia, sinboloei garrantzia handia.
- Ditutzen interes, botere harremanak (dekonstrukzioa, analisi genealogikoa...) azaltzen dituzte.
- Botere gabekoen iritziak jasotzen dituzte.

Kritikak:

- Formalki oso erradikala (dena kritika daiteke), baina ez du erreferentzia eraldatzailerik. Erlatibotasuna da nagusi.
- Beraz, politikoki desmobilizatzailea da.

### **3. ESTATUA ETA ESTATUAREN SISTEMA**

ESTATU MODERNO ETA SUBIRANOAREN EZAUGARRIAK

Estatua nazioarteko gizarte eta harremanetako egile nagusia da historikoki. Estatua Errenazimenduan sortu zen (XV, XVI), estatu subiranoa XVII.an. Europan sorturik, mundura hedatu zen.

Estatu moderno eta subiranoaren elementu osagarriak:

- Lurraldea
- Populazioa
- Gobernua
- Besteen onarpena

EUROPAKO ESTATU SUBIRANOEN SORRERA: WESTFALIAKO BAKE ITUNA (1648)

Testuinguru historikoa: Habsburgoren inperio katolikoa erreformaren kontra, batasun eta ortodoxia erlijiosoaren alde. 30 Urtetako Gerra galdu zuen.

Itunak aldaketa nagusia ekarri zuen Europan: estatu subiranoan oinarritutako nazioarteko gizarte sekular bat sortu zuen.

Hiru printzipioak:

1. Erregea bere erresuman: errege "subirano"-ek ez dute aginte altuagorik, boterea monopolizatzen dute, independenteak dira, eta berdinak.
2. Erregeak bere erresumaren erlijioa ezartzen du. Kanpoko aginteek (Papak...) errespetatu behar dute.
3. Botere oreka: estatuen arteko aliantzak, potentzia hegemonikoak ekiditeko.

WESTFALIAKO BAKE ITUNAREN (1648) ONDORIOAK

- Nazioarteko akordio berria da, estatuen subiranotasunean oinarriturik (Erdi Aroko "Republica Christiana" ren ideia baztertuz).

- Subiranotasuna eta ez interbenintzeko printzipioen sorrera.
- Lehenengo “estatuaren gizartea” sortzen du: estatu subiranoak arauekin, diplomaziarekin, botere harremanekin.
- Europan bakarrik ematen da. Baina etorkizuneko nazioarteko gizartearen hazia.

## ZER DA SUBIRANOTASUNA?

Aginte nagusi bat izatea lurraldean, aginte altuagorik gabe.

Subiranotasunak zer ematen die estatuei...

- Estatus juridiko berezia
- Berdintasun juridikoa (nahiz eta botere ezberdina...)

Bi subiranotasun mota:

- a) Barnekoa: lurraldean dauden beste aginteekiko nagusitasuna duena.
- b) Kanpokoak: kanpoko aginterik ez dago estatu gainetik (bakarrik estatuak onartutako arauak eta erakundeak).

Estatu subirano baten independentzia legitimizatu behar da: besteen onarpena eta Nazio Batuetan sarrera.

Subiranotasuna gaur egun erlatiboagoa:

- Globalizazioa, interdependentziak
- Integrazio prozesuak
- Eskuhartze humanitarioa

## ESTATUEN BOTERE MAILA EZBERDINAK

Boterearen determinatzaileak:

- Lurraldearen tamaina & kokapena (kostaldea, itsarteen kontrola...)
- Populazioaren formakuntza, kantitatea....
- Baliabide naturalak
- Aberastasun ekonomikoa (Nazio-Produktu Gordina, eta NPG per capita)
- Ahalmen militarra: Ejerzitoaren tamaina & armamentuaren kantitate eta kalitatea.

## ESTATUEN BOTERE MOTAK

- Harreman boterea (zeozer egitera behartzeko ahalmena). Boterearen oinarria, baliabideak: ekonomikoa, militarra...
- Botere estrukturala (beste estatuengan eragina). Nazioarteko harremanen arauak (juridikoak, politikoak, sozialak...) ezartzeko gaitasuna.

Beste klasifikazio bat:

- Hard power (botere gogorra): politiko-diplomatikoa, militarra
- Soft power: kultura, ideiak, teknologia, informazio. Gero eta garrantzi gehiago (Joseph Nye)



## NAZIOARTEKO ORDENA

Estatuen arteko botere banaketa/egitura zehatz bat da.

Potentziek: Boterea metatzen/polarizatzen/kontzentratzen dute

Polaritatea/polarizazioa: "Polo" edo potentzien botere metaketa.

Potentzien arabera, orden mota ezberdinak daude:

1. Unipolarra: GH ta gero SESB desagertu zanean, AEB bihurtu zen potentzi bakarra eta botere guztia zeukana.
2. Bipolarra: Gerra Hotzean mundua bitan zatituta zegoen, boterea bi polotan banatuta.
3. Multipolarra

Gaur egun bastante igualitarioa da, ze nahiz eta batzuk bestiak baño indar gehio izan, ezta horren nabarmena daon aldia.

Bestelako kontzeptuak:

- Unilateralismoa: Estatuaren interes nazionalen arabera hartzen denean erbaki bat. Adb: inbasioa.
- Multilateralismoa: Arazoak kudeatzeko Nazio Batuetan erabakiak hartzea.

## ORDEN HEGEMONIKO ETA INPERIALA

"Hegemon"-a(=superpotentzia): estatu/mundu-mailan/eskualdean nagusitzea besteekiko.

Hegemonia: Lidergo argia eta onartua du, eragin handia besteengan, guztien arteko harremanak definituz. Bere onarpena beharrezkoa erabakiark hartzeko.

Inperioa: Sistema gobernatzen du, bere borondatea inposatuz. Inperioak menpekoak ditu.

## **4. IKUSPEGI HISTORIKOA: estatuen sistematik gizarte mundialera**

### ESTATU SUBIRANOEN SISTEMAREN HEDAPENA

Europatik mundura hedatu zen, fase ezberdinetan:

1. Fasea. Kolonizazioa eta inperialismoa (XV. amaiera-XX. hasiera)  
Europear estutuak lehia politiko eta ekonomikoan (kapitalismoak bultzatuta), beste erregioen kontrol politiko militarra, eta ustiaketa ekonomikoa gauzatu zituzten, egiturak aldatuz.
2. Fasea. Deskolonizazioa (II MG ostean)  
Deskolonizazio eta independentziaren aldeko burrukak, autodeterminazioaren ideian oinarriturik (Europako eta Ameriketako ideia!). Nazionalistak, iraultzaileak.. izan ziren. Independentziak: 1947z goertzik (India, Pakistan). Nazioarteko gizarte unibertsalean partaideak biderkatzen dira (47→160).
3. Fasea: SESBen eta GHen amaiera.

Errusia zarista muga inperialak (SESBak mantenduak) desagertu. Europear deskolonizazioaren azken fasea. Hedapenaren ondorioz, Estatuaren gizarte/sistema globala sortzen da.

## BIGARREN MUNDU GERRAREN (1939-1945) ONDORIOAK

Nazioarteko sisteman aldaketa handiak sortarazi zituen:

- Europa suntsituta, zatituta, lidergo mundiala galdu. EEBB eta SESB liderrak.
- Nazio Batuen sorrera (1945) → bakea eta estatus quo bermatzeko
- Deskolonizazioa
- Gerra Hotza
- Aurkakotasun nuklearra

Aliatuen arteko akordioak (Yalta, Postdam) eta elkarbizitza.

Aliatuen arteko harremanak txarrera egiten dute.

- Mesfidantza eta pertzepzioak: kapitalismoaren hedapena, iraultzaren hedapena.
- EEBBetan: Truman Doktrina eta Marshall Plana (1947)
- Ekialdean: Berlingo blokeoa, erregimen komunisten ezarpena.

NATO sortzen da 1949an, Ipar Atlantikoko itunaz → V kapitulua: baten kontrako erasoak, guztiek erantzungo dute.

EEBBetako Europa defendatzeko konpromezua, monopolio nuklearraz. SESBek mehatxutzat jotzen du. Bi blokeak eraikitzen dira, Gerra Hotza hasten da.

## GERRA HOTZA (1947-1990)

Nazioarteko orden bipolarra dago (aurkakotasuna arlo guztietan). Bloke bakoitza eredu eta azpisistema da (liderra, aliatuak, erakundeak...). Batzuk kuestionatzen dute erabateko zatiketa zegoenik. Kontrol politikorako aitzakia.

## DESKOLONIZAZIOA (1947az geroztik)

Gida: autodeterminazioaren ideia, Nazio Batuetako Karta.

Mugimendu nazionalista eta marxistak nagusitu ziren. Harreman poskolonialak, beste kontrol mota batzuk.

## AURKAKOTASUN NUKLEARRA

- Proliferazio nuklearra: EEBBek bota zuten bonba (1945). Besteek lortu: BH (1952), SESB (1955), F (1960), Txina (1964)... 60 hamarkadan: Ez Ugaritzerako Ituna.
- Lasterketa nuklearra.
- Elkarren Suntsidura Aseguratuaren doktrina. Arma nuklearrak ez dira erabiltzen. Ez gerra zuzena, bai Hirugarren Munduan.

## GERRA HOTZAREN BILAKAERA ETA FASEAK

1950 Koreako Gerra

- Ipar Koreak Hego Korea inbaditzen du.
- EEBBetan: ofentsiba komunista mundiala? Ondorioa: EEBBek arma nuklearrak Europan, SESBren aurrean.

#### 70eko hamarkada Distentsio aldia

- Harremanak baretzen eta hobetzen dira
- Merkataritza, trukeak, bisitak, akordioak. Helsinkiko Azken Akta (1975)

#### 80-86 Bigarren Gerra Hotza

- 1979, Afganistango inbasioa. Ofentsiba komunista?
- 1980, Reagan antikomunista sutsua.
- Gerrak areagotzen (Ertamerika...)
- Izarretako Gerra (Misilen Aurkako Ezkutua)

#### 1985 Gorvachov presidente

- “Pentsamendu berria”: elkarbizitza, nazioarteko harremanetako desideologizazioa, barne eta kanpoko erreformak (Glasnost, Perestroika).
- Tentsioak eta aldaketak bloke sozialistan (Polonian...)
- Brezhnev Doktrina amaitu, Sinatra Doktrina ezarri (“I did it my way”): indarra ez erabili aliatuetan. Erreformak eta Berlingo harresiaren eraisketa.

#### 1989-1990 SESB, Bloke Sozialista eta Gerra Hotzaren amaiera

- Parisko Akordioak (1990) eta beste batzuk: armamentuaren kontrola eta desarmaea.

#### GERRA HOTZAREN OSTEKO MUNDU ORDENA BERRIA

Ordena bipolarra desagertu da, beraz:

- Interdependentzia eta globalizazioa areagotzen dira.
- Gerra nuklearraren arriskua askoz txikiagoa. Baina beste gatazka motak daude.

Ordena berria eraikitzen doa: ALDAKORRAGOA. Ez hain hierarkikoa eta zurruna, konplexuagoa, nahasia, kontraesan eta ziurgabetasunekin. Botere hierarkia arloka zatituta dago (banaturik).

#### A) ARLO MILITARRA (EEBB)

- Unipolartasuna: gastu militarra, baseak, teknologia.
- Unilateralismoa: segurtasunari dagokionean, erabakiak bakarrik hartzen zituen.
- Potentzia militar global bakarra (kontinente guztietan ditu base militarrek, baina EEBBtan inorrek)
- NATOren hedapena eta birmoldaketa

Gerra ezberdinak gauzatu ziren nagusitasuna (+ unilateralismoa) indartzeko asmoz:

1. Golkoko gerra (1991): Irakek Kuwait inbaditu zuen petrolioa eta nagusitasuna lortzeko.
2. Bosniako gerra zibila: Yugoslavia zena bitan zatitu zen, tema erlijiosoengatik. Daytoneko akordioak (1995): Bakea inposatu, Europaren ahulezia.

3. Kosovoko gerra (1999): Serbiak politika errepresiboak ezarri zituzten Kosovon (hizkuntza inposatu...) beraz, garbiketa etnikoa egin zen (lurraldetik botatzea); Serbia bonbardatu zuten horretarako Segurtasun Kontseiluaren baimenik gabe (VII.kap).
4. Afganistaneko okupazioa (2001): NYC dorreen eraso talibana, Bin Laden buru. AEB Afganistan okupatu, helburu/interes geopolitikoengatik: 1.-Txina superpotentzia izateko bildurra (mehatxua), beraz base militarren bidez inguratu zuen herrialdea. 2.- Petrolioia
5. Irakeko inbasioa (2003): petrolioia eta hegemonia. Segurtasun Kontseiluaren baimenik gabe egin zen inbasioa (ekintza unilaterala).

## B) ARLO POLITIKOA

EEBBak botere eta eragin handiena izaten jarraitu zuen, baina beste potentzia batzuk sortzen dira:

Europar Batasuna (ekonomikoan bateze):

- Kanpo Politika eta Segurtasunerako Politika Komun ahula (partaide asko→ desadostasunak)
- Frantzia eta Britainia Handia, eragin handia (Segurtasun Kontseiluan, metropoli ohiak, bonba nuklearra...)

Errusia:

- Gerra Hotza eta gero krisialdian: aldaketa politikoak, krisialdi ekonomikoa, arazo etnikoak, dilema Asia/Europa.
- Baina bonba nuklearra zuen.
- Azken urteotan Putinen eskutik, susperraldia izaten ari da.
- Petrolioia eta gasarekiko dependentzia (hori esportatzen dute).

Japonia:

- Pisu ekonomikoa du, baina ez militarra (ze WWII galdu zuten). Pisu politikoa handia du.

Txina:

- Arazoa: Zinozentrismoa => Bere arazoetan oso zentratua egon da (herrialde itxia izan da). Beste lurraldeak bakean laga ditu eta ez zuen laguntza eskaini.
- Orain mundura irteten ari da ze baliabide beharra du (elikagaiak, mineralak, gasa & petrolioia...). Beraz asko esportatzen dutenez, interdependentzia dute: interes erregionalak.
- Etorbizunean EEBBen lehiakide nagusia izango da ze superpotentzia izateko bidetan dago (militarki gero eta boteretsuagoa da).

Estatu Batuetako “unilateralismorako tendentzia” 95.urteik aurrera eman zen. Bere interesak aurretik jartzearen arrazoia, hegemonia. Nazioarteko itun asko sinatu gabe, adb; Kyotoko akordioa. Nazio Batuak eta nazioarteko zuzenbidea zama bezala ikusten zuten. Boterea erabiltzeko borondatea.

Neokontserbatoaren agendak interes nazionalak eta hegemonia bultzatzen zituen (egonkortasuna). Errealista eta idealisten elementuak hartu zituzten: mundua aldatu, globazizazioa hedatu. Errealistak esate zuen mundua ez dijoala aldatzen. Bakoitzaren segurtasuna bermatzeko militarki preparatuta egon ber dela.

Aitzakia: “11 S” Dorre Bikiak

- “Nazioarteko terrorismoaren aurkako gerra”
- Erantzun militarra, proaktiboa eta globala
- “Segurtasun Nazionalaren Estrategia”: Mehatxu berriak, tresna berriak
- Eraso prebentiboak, Segurtasun Kontseilutik kanpo, Nazioarteko zuzenbidetik kanpo
- Irakeko inbasioa

### C) ARLO EKONOMIKOA

EEBBek pisu handia: lider teknologikoa, aginte monetarioa, merkataritzan nagusitasuna...

Hiru bloke ekonomiko zeuden munduan, beraz boterea hedaturik geratzen zen:

- Mendebaldeko Europa
- Amerika
- Asia (Japonia /Txina)

### GLOBALIZAZIOA

Prozesu, dinamika, elkarloturen mundializazioa eta azelerazioa da, zeinak nazioarteko sistema aldakorra bihurtzen duen. Ez da soilik ekonomikoa; kulturala, politikoa... ere bada. Teknologia eta garraioek bultzatua. Proiektu ideologiko neoliberala. Gerra Hotzaren ondorengo ezaugarri nagusia.

Globalizazio hau “liberala” da:

- Merkatu ekonomiaren eta demokrazia liberalaren hedapena Gerra Hotzaren ondoren.
- Orden liberalaren garaipena suposatzen du. Fukuyama: “Historiaren amaiera”.
- Bake liberala eta bake demokratikoa dakartza globalizazioak.

### GLOBALIZAZIOARI KRITIKAK

A) Errealitatean ez dago globalizaziorik:

- Iparraldean kontzentratzen da, Hegoaldea baztertzen du (Afrika batez ere)
- Erregionalizazioa

B) Herrialde & klaseen arteko aldeak handitzen ditu (pobrezia).

C) Estatuak ahultzen ditu, merkatua eta multinazionalak indartuz.

- Defizit demokratikoa.
- Iparraldean, ongizate estatua desegiten.
- Hirugarren Munduan, estatu hauskorrak eta porrot egindako estatuak.

D) Ezegonkortasun politikoa eta konfliktuak bultzatzen ditu.

- E) Mendebaldeko baloreak hedatu/inposatzen ditu: “Prozesu zibilizatorio” berria
- F) Giza eskubideak ez dira “mundializatzen”. Hiritartasun globala.

## 5. AKTORE ANIZTASUNA

Nazioarteko Erakundeak (=Gobernuen arteko Nazioarteko Erakundeak): Estatu-en elkarte

Interdependentzia globalaren isladapena

Ezaugarriak:

- Estatu-en elkarteak dira
- Bolondreski sortuak, nazioarteko akordio baten bidez
- Egitura instituzionala: Organo iraunkorrek eta propioak ditu
- Lankidetzaz ahalbidetzen du, interes komunitarioak

### Bilakaera

Jatorria: Iraultza Industrialean, funtzio zehatzetarako (merkataritza, garraioak, komunikazioak...)

-1815an, Rineko Nabigaziorako Batzorde Zentrala.

-Ibai-nabigazio librerako batzordeak

-Nazioarteko Batasun Telegrafikoa (1865)

-Batasun Postal Unibertsala (1874)...

IMG ostean: Erakundeak eduki politikorekin

-Nazioen Elkartea (1919): bakea, segurtasuna

-Lanaren Nazioarteko Elkartea (1919)

IIMG ostean: ugaritzen dira (gaur 243)

Tipologiak

1) Esparru geografikoaren arabera

-Unibertsalak

Inportanteena: NNBB. Orotara 35 dira. NNBBekin lotuta gehienak (UNESCO...), beste batzuk ez (Turismoko Mundu Erakundeak)

-Erregionalak:

NATO, OSCE-ESLE...

2) Funtzioen arabera

-Multifuntzionalak: gai guztiak

NNBB, Afrikar Batasuna...

-Funtzio espezifikokoak edo mugatuak

Gai ekonomikoak (Mundu Bankua)

Segurtasuna (Mendebaldeko Europear Batasuna-UEO)

Gai sozialak, kulturalak (Unesco)

Osasunaren Mundu Erakundea

## 6. NAZIO BATUAK

Sorrera: 1945an, San Francisco-ko Kartaz (printzipioak, funtzioak...). WWII osteko ordena eta pakea bermatzeko sortu zuten, eta gaur egun 193 estatu daude bertan.

Sustraiak:

- Ikuspegi kantianoa: orden mundial paketsua
- Nazioen Elkartea (1919)

Helburua: pakea (beranduago: garapena, arazo globalak...). Horretarako bi bide:

1. Nazioarteko gizarte zibil bat eta nortasun mundial bat eratuz: Erakunde sektorialak arazoak konpontzeko.

2. Segurtasun kolektiboko sistema bat sortuz (Gerra Hotzean paralizaturik): Gerra debekaturik zegoen, eta Nazioarteko erasoak zigortuta zeuden, Segurtasun Kontseiluaren aldetik.

→ VII. Kapituluak: SKren baimenik gabe eginiko ekintza armatuak nazioarteko ordena/bakea arriskuan jartzen ditu.

### ORGANO NAGUSIAK

1. Asanblada Orokorra (estatu guztiena)
2. Segurtasun Kontseiluak (organo garrantzitsuena, 15 kidek osatua)
3. Idazkaritza Nagusia (NBetako administrazioa)